

**A.13.3. MURRATEGI****A.13.3. MURRATEGI**Azalera: 18.697 m²**I. Ordenazio-irizpideak eta Helburuak**

Autobidearen hegoaldean dauden eraikuntza guztiak, "Trust Eibarrés S.A." enpresaren instalazioak ere barne direla, sartzen dira area honetan.

Eguno eraikinen ezaugarriak zehatz-mehatz aztertu eta hasi beharreko onbideratzeak zehaztuko dituen Plan Berezi baterako uzten da eremu honen antolamendua.

Eremu honetatik kanpo geratzen da A.I. 136 Murrategi Jarduketa Integratua; horren zehaztapenak dagokion hirigintza fitxan jasotzen dira.

II. Hirigintza-Erregimen Orokorra

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren araberakoa.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Eguno eraikinak, ordeztzerakoan, O-AL-AO-1 "Lerrokadurak eta Sestrak. Ordenantza Eremuak", XII. planoan zehazturiko lerrokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera esanguratsuen Erabilera produktiboa da: Hirigintza Arauen agiriko 8.3.09. Artikulua.- Erabilera produktiboa (8. erabilera).

III. Ordenazio Xehatua

Eremu honetan zehatutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.